

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 3640

*121/2023 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoaren zuzendari nagusia kargutik kentzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 26ko bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– María Gloria Múgica Conde andrea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoaren zuzendari nagusiaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.